



OSTEGUNA, 2018KO URTARRILAK 11
Argitaratzailea:
 Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Naiara Roldan de Aranguiz
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletze
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
 villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
 anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
 alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 902 82 02 01



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
 Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 11

AGENDA

Deialdiak

Tolosa. *Hacia la luz* filma. Zine Foruma. Jatorrizko bertsioan. 19:15 eta 21:45, Leidorren.
Tolosa. *Ikimilikiliklik.* JA Artzeren unibertsoa erakusketa. *Ikimilikiliklik, JA Artzeren unibertsoa* ikus-entzuzko sorkuntza da, ikusleak irudi-, musika- eta soinu-mundu batean murgilduta haren obra ezagutzeko sortutakoa, azken hamarkadetako euskal sortzaile original eta garrantzitsuenetako bat ezagutzeko helburuarekin. Jatorrizko proiektua: Alberto Lizarralde. Antolatzaile: San Telmo Museoa - EHU-UPV Mikel Laboa Katedra. Aranburu jauregian.
Tolosa. Aniztasun Hariak erakusketa. Ukrainako jantzi eta herri artisautzaren erakusketa (Ukraina-Euskadi elkartea). Aranburu jauregian.

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza. Eskualdeko berriak, Iker Ibarluzearekin eguraldia, gazteekin solasaldia eta Inigo Asensio *Kale Kantotik*.
11:00-12:00. Hamaiketako. Villabona-Aiztondoko albisteak.
12:00-13:00. Entzuteko Jaioak. Musika saioa.
16:00-18:00. Zebrabidea. Arrosa Sarearen magazina.
18:00-20:00. Goizeko saioek utzitako onena.
21:00. Ataria iluna.

28 KANALA

12:30. Ur eta lur.
13:30. Gaurkoan Tolosaldeko.
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko.
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko.
22:00. Ikusi Irratia.
22:30. Antzerki Topaketak.
23:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Bengoetxea Aiestaran, E. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 670648.
Gauko. Morant Barber, R. Zabalarretalorategiak, 1. Telefonoa: 943 673849.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Negu bete-beteko eguraldia bueltan izango dugu, bart gauean sartutako frontearen atzetik goietan aire hotza sartuko zaigu eta zaparradak sarri botako ditu, dezente nabarmen hoztuko zaigu, goietan aire hotza dagoenez ekaitzetarako joera bat izango du eta lehendabiziko orduetan behintzat ekaitzetarako joera hartu eta momenturen batean trumoiak jo eta kazkabarra botatzea ere ezin dugu baztertu, zaparradak sarri botako ditu, mardul samarrak gainera. Tenperatura hoztu egingo zaigunez gainera, balio altuenak 6-7-8 gradutik ez dira pasako, eluraren mailak ere dezente egingo du behera. Lehen orduetan 500-600 metroan zurutuko du baina ekaitz-guneetan behe-rago zuritu dezake, 400 metroren bueltan zurutu deza-ke beraz. Arratsalde-iluntzerako elur mailak gora egingo du, nahiz eta prezipitazio dezentekin jarraituko dugun. Euria protagonista izango da, euria sarri eta mardul botako du, litro batzuk pilatuko dira biharkoan.

Bihar. Eguraldia lasaitu egingo da. Hego, hego-ekialdeko haiea bueltan izango dugu, presioak zertxobait gora egingo du. Egun osoan zehar ateri mantenduko da. Hala ere, hodei geruza handi samarra izango dugu, egun guztian zehar. Egunaren bigarren zatian zakartu egingo zaigu eta bolada zakarrak izango ditugu. Tenperatura zertxobait gora etorriko denez, eguraldia eramangarriagoa izango da. 9-10-11 gradu harrapatuko dira.

TOLOSALDEKO ATARIA-k ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK

943 65 56 95 - ataria@ataria.eus

PUBLIERREPORTAJEA

Autogestioan oinarrituta, Sutearon bazkideek babesten dituzte euren etxebizitzak

Landa eremuetako etxebizitzak babeste. Horretan datza Sutearen lanaren garrantzia. Duela 26 urte Bizkaiko Lea-Artibai eskualdeko herritarrek hasitako lanari heldu, eta Euskal Herriko hainbat txokotara zabaldu dira sutearoak. Araba, Bizkai eta Gipuzkoan, guztira, 39 sutearo edo ermandade dira gaur egun.

Elkarte bezala funtzionatzen dute, kooperatiba baten filosofia da Sutearen. Hala, bazkide denen artean babesten dituzte etxebizitzak. Autogestioan oinarritzen dira horretarako, eta denen artean babesten dituzte etxebizitzak, denen parte hartzearekin. Hori, eta irabazi asmorik ez izatea da aseguru etxeengandik bereizten diena.

Zornotzan dute bulegoa, eta hango langileek bazkideen beharrik kudeatzen dituzte. Hori da euren lana, sutearoetan, modu autonomoan, hartzen dituzten erabakiak kudeatzea. «Normalean, denek ditugu arau berdinak baina bazkideek erabakitzen dute arau horiek zeintzuk diren. Sutearok ermandadeen aginduak betetzen ditu, aurrera eraman», diote.

Beraz, lehenago ere bazegoen errealitate bati forma juridikoa emateko sortu zen Sutearoko Federazioa, etorkizuna bermatzeko.

Bazkideak jartzen duen diruarekin guztion artean, era solidarioan, ordaintzen dituzte kalteak. «Bazkideak jartzen duen diru konponketak, siniestroak eta abarrik ordaintzeko erabiltzen da. Eta baja ematerakoan bazkide horrek Sutearen poltsan dirurik balu, bueltan hartuko luke. Bazkide denek aportatzen dute Sutearen proportzio berdina, bakoitzak bere etxearen balioaren arabera».

tzen direnei beren filosofiarekin bat egitea eskatzen diete, ez prezioagatik. «Autogestioan, lankidetzan lan egiten dugu, eta baztarretara joateko eskatzen dugu, erabakiak denen artean hartzen ditugulako. Elkarre transbersala da, eta gure proiektua denen artean egindakoa da», azpimarratu dute.

Ermandade bakoitzean batzar bat egiten dute urtean, inguruko

bazkide denak biltzen dituen. Urteko balantzea egin, kontuak aurkeztu eta eztabaidatu beharrekoak lantzen dituzte, sutearo bakoitzean tokiko gai ordenari jarraituz. Horrez gain, ermandadearen batzordea aldatzeko baliatzen dute batzorra, eta hurrengo urtean ermandadeko ordezkari zeintzuk izan-

go diren jakitera emateko.

Autonomoak direlako du sutearo bakoitzak tokian tokiko batzordea. Hurbila delako. Eta bazkideek duten beste abantaila bat da norberak erabakitzen duela etxean egin beharreko konponketa nork egingo duen. «Sutearok peritua bidaltzen du, baina gremioa bazkideak berak biltzen du, inguruko artean sinergiak lortzeko, eta, kilometro zero deritzan horretan oinarrituta, tokiko jendeari ere lana emateko».



TOKIAN TOKIKO ERABAKIAK

Baserrien jabeak dira, batez ere, Sutearora jotzen dutenak, aseguru etxeentzat ez baitira erakargarriak. Eraikuntza handiak dira, eta etxebizitzek baino arrisku gehiago dituzte. Horregatik, baserrien jabeek aseguru etxeetan ordaindu behar duten kuota oso garestia izaten da. Sutearok, aldiz, ez ditu baserriak baztertzen, bere baitan hartzen ditu; «gure ardura delako baserri inguruko etxebizitzak babeste».

Horregatik, Sutearora hurbil-

SUTEARO, LANDA EREMUETAN KOKATUTA DAUDEN ETXEBIZITZAK BABESTERA ZUZENDUA



ELKARRI LAGUNTZEKO ERAKUNDEA



Jauregizar, 10 - beheka • 48340 Amorebieta - Etxano • tel: 94 630 00 62 - 660 39 67 00 • sutearo@sutearo.eus • www.sutearo.eus